

## ASKATASUNAREN PARKEAREN DISEINU BERRI BAT AZTERTZEKO PARTE HARTZE PROZESU BATI EKITEKO MOZIOA

Hiprodromo etorbidearen eta Brigidetako komentuaren artean kokatutako Askatasunaren Parkea, beste jarduketan artean, Udaletxe berriaren eta egun eraikitzen ari diren 250tik gorako etxebizitzak aurreikusten zituen A1-Okendo eremuaren garapen urbanistikoaren funtsezko eta, gure ustez, oinarritzko atala bezala pentsatua eta eraikia izan zen.

Uste dugu, 5200 m2 inguru hartzen dituen parkearen diseinua ez dela batere egokia eta ez duela "herritarren gunen" tzat kontsideratu zen ideiarekin ezta erabilerarekin ere bat egiten. Agerian da, Mercero Erakusketa aretoaren ondoko jolas tokia kenduta, parkea gutxiegi erabiltzen dutela Lasarte-Oriako herritarrek. Sekulako jardineretan oinarritutako arkitektura horrek, "herritarren bizi-gune" bezala sortu zen espazio berde batean pasealdiak, herri erabilerak, edo eta jolas erabilerak eragozten dituela eta, ondorioz, edozein kirol eta jolas jarduerak zein kulturalak eta sozialak antolatzekeo mugak jartzen dituela.

Pentsatzen dugu, kontuan hartu behar dela ere bai, eremu horretan eraikitzen ari diren etxebizitzekin amaitzerakoan, inguru hori parkearen erabiltzaile berriez eta familia ugaz beteko dela. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen dugu parte hartze prozesu bati ekitea parkearen erabilera berriak definituko dituen, definitutako erabilera berri horietan oinarritutako diseinu berri bat birpentsatuko duena eta, ondorioz, espazio publiko horretan berrurbanizazio jarduketara berri bati ekingo diona.

Pentsatzen dugu, egungo Askatasunaren Parkeak, Okendo plazarekin lotuta, ez duela bat e giten bere garaian, eremu horren garapen urbanistikoaren onarpenarekin batera, "herritarren gunen erreala" bezala kontsideratua izan zen ideiarekin. Are gehiago, Arau Subsidiarioen arabera, "Lasarte-Oriako herri kokapenaren jatorrizko hirigunea eta herriko bizitzaren erdigunea" bezala izendatutako eremuan kokatzen da espazio publiko hori.

Horregatik guztiagatik, EAJ udal taldeak udalbatzar honek ondorengo erabakiak hartu ditzala proposatzen du:

- 1.- 2017ean, Askatasunaren parkearen erabilera berriak finkatzeko parte hartze prozesu bati ekitea, eta ,beharrezkoa balitz, aurrekontuetan horretarako partida bat aurreikustea.
- 2.- Herriko ikastetxeen guraso elkarteei zein beste herri elkarteei edo eta udaletxeko kultura, kirol eta gazteriako departamentuei gonbidatzea prozesu horretan parte hartu dezaten.
- 3.- Aurreko parte hartze prozesuaren emaitzen arabera, diseinu berri batekin eta berrurbanizazio proiektu berri batekin hastea.